

Bilbon, 1999ko maiatzaren 28an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna (goizean),
M. Azkarate (goizean),
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
E. Larre,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
J. M. Satrustegi (goizean)
eta A. Urrutia, euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzailea,
A. Eguzkitza, Exonomastika batzordekidea
(lehenengo gaiian)
eta M. Gorrotxategi, Onomastika batzor-
deko idazkaria
(2. eta 3. gaiian)

Hizkuntza arauak

Onomastikako 38. eta 53. arauen aldaketa

Euskaltzainburuak A. Eguzkitza jaunari eman dio hitza. Honek adierazi du gaia aurkeztu zenean esandakoari gehi lekiokkeen ezer ez duela eta oharrik ba ote den galde egin du.

Euskara Batuko batzordearen iritziz, hizkuntza aipatzeko, *-era* atzizkia oinarrian lurralde izena dugunean erabili beharko litzateke, ez besteetan: *guarani*, adibidez.

Tx. Peillen jaunak galde egin du ea kontuan hartu den, adibidez, arabiera egiten den zenbait herri arautua duela beren herriaren izena nola behar den eman latin alfabetoz.

B. Oihartzabalek, berriz, horrelako lanak beharrezko direla aitortu arren, bere zantza agertu du ongi ezagutzen ez ditugun gaietan sartu behar ote duen Euskaltzaindiak. Nolanahi ere, *malgaxe* eta *kaxmirera* behar dutela esan du.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan elkartu da Euskaltzaindia 1999ko maiatzaren 28an bere hileroko batzarra egiteko. Bilera goizeko hamarrak eta hogeian hasi da. Parte hartu duten euskaltzainen izenak ezkerreko zutabearen biltzen dira. Ezin etorria adierazi dute A. Iñigok, J. M. Lekuonak, P. Salaburuk, I. Sarasolak eta P. Zabaletak.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Inoren oharrik gabe onartu da aurreko hileko agiria.

Euskaltzainburuan hitzak

Euskaltzainburuak Anbrosio Zatarain euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri eman du eta dolua erakutsi. Hileta elizkizunean zenbait euskaltzain eta urgazle izan ziren. Mikel Atxagari galde egin zaio hilberri txostena egin dezan.

Charritton jaunak ere uste du hau ez dela Euskaltzaindiaren lana, unibertsitatearena baizik. Hala ere, irakaskuntzan ari direnek, entziklopediak idatzi behar dituztenek eta abarrek, irtenbide bat behar dutela erantzun zaio eta lan hau behar beharrezkoa dela.

Era guztietako kezak eta iritziak agertu dituzte euskaltzainek. Satrustegi jaunak hiru puntutan laburbildu du arazoa: batetik, Europako hizkuntzentzat hartu zen bideari eutsi behar zaiola. Bestetik, bere garaian onartutako zerrenda albait gutxien aldatu behar litzateke. Eta gehiketa gisa ematen den zerrendak, berriz, ez duela Euskaltzaindia hainbeste lotzen. Beraz, horretaz geroago ere hitz egin ahaliko dela.

Azkenik, eztabaida luzearen ondoren, batzordeak proposatzen dituen aldaketak banan-banan bozkatzea onartu da. Horren arabera, honako aldaketa hauek bakarrik onartu dira: *bengalera* (*bengaliara*-ren ordez), *bislama* (*bislamera*-ren ordez), *gujaratera* (ez, *gujaratiera*), *kannada* (*kannadera*-ren ordez), *malgaxe* (ez *malgatxera*, ez *malgatxe* ere), *maratera* (*maratiera*-ren ordez), *paxtuera* (ez *paxtoera*), *punjabera* (ez *punjabiera*), *kirundi* (ez *kirundiera*), *telugu* (ez *teluguera*), *thailandiera* (*thaiara*-ren ordez) eta *sinhala* (*zingaliara*-ren ordez).

Hauek izango dira, hortaz, 53. arauari ezarriko zaizkion aldaketak. Batzordeak proposaturiko gehiketak eta kenketak, berriz, beste baterako utzi dira. Zuzenketa hauek denak onartu ondoren, araua behar bezala berriro onartuko da.

Europar Batasuna

Gainerako erakunde politikoen izenentzat Euskaltzaindiak proposamenak egin dituen bezala, European sortzen ari den batasuna izendatzeko orduan dagoen anabasari aurre egin beharra ikusi du Onomastika batzordeak. Aurkezten diren aukerak bi dira: *Europako Batasuna* eta *Europar Batasuna*. Onomastika batzordean iritzia erdibitua ageri omen da: lau kide *europar*-en alde, hiru *Europako*-ren alde. Zenbait euskaltzainek beren iritzia eman dute eta, azkenean, botoetara jo da. Hona hemen emaitza: hamar euskaltzain, *Europar Batasuna*-ren alde eta zazpi, *Europako Batasuna*-ren alde. Boto zuri bat ere izan da. Horrenbestez, *Europar Batasuna* deitura onartu da.

"Santu, san, done eta ingurukoak" izeneko txostena

H. Knörr jaunak eman du egindako lanaren berri. Agindu bezala, Onomastika batzordeko eta Euskara Batuko batzordeko bina ordezkari osatutako batzordeñoa bildu da, baina ezina gertatu omen da proposamendu bakarra ekartzea.

B. Oihartzabalek gogoratu du batzordeño bat osatzea erabaki zela eta helburua san-tuei erreferentzia egiterakoan, ez bestetan, nola jokatu behar den proposatzea zela. Bildu dira, baina ez da adostasunik lortu, ez eta lehen puntuan ere.

Satrustegi jauna ez dago ados egin nahi diren bereizketa metafisikoekin. Eztabaida luzea piztu da. Haritschelhar jauna saiatu da bi zerrendak alderatzen eta adostasunik eta desadostasunik zertan diren finkatzen. P. Goenagak, ondoren, gogorarazi du batzordeñoak ez duela eskatutako lana bete, ez baitu ekarri testu adosturik. Azkenean, batzordeñoari (P. Salaberri, H. Knörr, M. Azkarate eta B. Oihartzabal) atzera biltzeko agindua eman zaio dokumentu bakar bat presta dezan, lehenbizi ados datozen puntuak jasoz eta ondoren desadostasuna dutenak. Testu hau aldeaz aurretik emango zaie eus-

kaltzainei, aztertzeo eta oharrak egiteko astia izan dezaten. Oharrok Euskaltzaindira bidaliko dira uztaileko batzarrean eztabaidatuak izan daitezten.

Eztabaida honen amaieran Davant jaunak adierazi du Zuberoako herritarren izenak finkatzen dituen zerrenda onartzeko prest dagoela eta hurrengo batzarrean bozkatzea on litzatekeela. Euskaltzainei zerrenda banatu zaie, beti bezala hurrengo bilerarako oharrak egin ditzaten.

Hiztegi batua: Pikante-postu zerrenda onartzea

Zerrenda hau amaitzeko A. Urrutiak aurreko bilkuran aurkeztutako oharretatik orrialde bat aztertu gabe gelditu zenez, hauek aztertzeari ekin dio batzarrak:

Piroteknia sartzea onartu da.

Pitean-en sarreran ageri diren *pitean pitean* eta *txitean pitean*, marraz horniturik eman beharraz ohartarazten du Urrutiak. Hala onartu da. Beraz, *pitean-pitean*, *txitean-pitean* agertuko da.

Pitox, *lepahori* hitzaren sinonimo gisa, hurrengo itzulirako utzi da.

Bigarren itzulirako utzi da *pizza* hitzaren ondoren etorri beharko lukeen *pizzategi* nahiz *pizzeria* hitza sartzea ere.

Piztuera hitza sartzea onartu da.

Pitrail hitzean ageri den huts tipografikoa ere zuzenduko da.

Pitxi hitzaren inguruan, berriz, eztabaida sortu da. Gauzak ez daude argi, nonbait. Datu gehiago bilduko dira eta hurrengo batzarrean erabakiko.

Ondoren, eztabaidarako markaturiko hitzak hartu dira solasgai.

Pista/pizta aukeraren aurrean botoetara jo beste biderik ez da ikusi. Hala ere, hemen prozedurako arazo bat sortu da hizkuntza arauekin zerikusirik ez duena, baina bai Euskaltzaindiaren jardunarekin: beste euskaltzain baten edo batzuen ahala(k) d(it)uen euskaltzainak alde egiten badu beste bati bere ahala emanaz, zer gertatzen da lehendik hartuak zituen ahalekin? Hain zuzen, hori gertatu baita M. Azkaratek alde egin baino lehen B. Oihartzabali ahala eman dionean. Honetaz erregelek zerbait esan beharko lukeela argi ikusi da. Dena dela, aurrerantzean erabakiko dena gorabehera, oraingo bozketarako idazkariaren proposamena onartu da: euskaltzain batek beste baten ahala badakar, ahal hori ezin dio, berearekin batera, beste bati eman.

Horrenbestez, *pista/pizta* auzia botoetara eramán da, azkenean: *pizta* formaren alde bozkatu dute hamar euskaltzainek. Beraz, hau onartu da.

Plagiatu eta *plagio* hitzak ere eztabaidagai gisa markatuak datoz zerrendan. Tradiziorik gabeko hitzak dira. Bozketak emaitza hau izan du: hamahiru euskaltzain *plagiatu* eta *plagio* formen alde. Beraz, -g-dun formak onartu dira.

Beste eztabaidagai bat *platano* sarrerari dagokiona izan da. Zerrendan, alboan *banana* hitza duela ageri da, baina “**platano-2** Heg. h. **banana**” ala “*platano-2** Heg. e. **banana**” argitzeo dago. Bozkatu ondoren, “h. banana” onartu da: hamahiru boto izan ditu bere alde.

Plazer hitzaren azken kontsonantea *-r* ala *-rr* den (*plazera* ala *plazerra*, alegia) bozkatu da. Aho batez onartu da *-r* bakarrekotzat ematea. Beraz, *plazera*, *plazerez*, *plazerik*, eta abar beharko du.

Honenbestez, *pikante-postu* zerrenda ontzat eman da, *pitxi* hitza hurrengoan erabakitzeko utzi bada ere.

***Postura-santu* zerrenda**

Zerrenda honi oharrak egin dizkietenak X. Kintana eta H. Knörr euskaltzainak izan dira. Kintana jaunarenak aztertu dira lehenbizi.

Postura hitzean, Kintana jaunak adiera markatzeko eskatzen du. Hala onartu da: ‘apustua’ dela esango da.

Prehistoria sarreran Kintanak, “h. historiaurrea” ezartzea proposatzen du bigarren hitz honi lehentasuna emanaz. Batzordea, berriz, zerrenda dagoen bezala uztearen aldeko ageri da, biak sinonimotzat emanaz. Eztabaida txiki baten ondoren, botoetara jo da. Hamaika euskaltzain agertu dira Kintanaren proposamenaren alde eta zazpi batzordearenaren alde. Beraz, “**prehistoria** h. **historiaurrea**” gisa agertuko da sarrera hori.

Sable sarreran “h. hondar, harea” jartzea proposatzen du ohargileak. Batzordearen iritzia ontzat emanaz, “*Ipar. Zah.*” erantsiko zaio sarrerari.

Sano sarreraren bi adieretan “Herr.” edo “Beh.” jartzeko eskatzen du Kintana jaunak. Eztabaidaren ondoren, 1.ean esanahia kendu eta adibideak jartzea onartu da, “*gizon sanoa, sagar sanoa*”. 2.ean, berriz, “Bizk.” eta “Herr.” oharrak erantsiko zaizkio ‘oso, asko’ adiera duelarik.

Eztabaidaren haritik, *sano-sano* adizlaguna ere sartzeari komeniko litzatekeela ikusi da. Euskara Batuko batzordeari proposamen hau helaraztea onartu da.

Honenbestez, Kintana jaunaren oharren azterketa amaitutzat eman da.

***Arautegiaren 28. artikulua*ren aldaketa**

Proposatzen den aldaketak bi zati ditu: batetik, karguen iraupena (bi, hiru ala lau urte) eta, bestetik, agintealdiak zenbat aldiz errepika daitezkeen.

Lehenbiziko bozketa artikulua aldatu behar den ala ez erabakitzeko izan da. Baiezkoaren alde, hamabost euskaltzain agertu dira; kontra, bi; eta hiruk zuri bozkatu dute.

Behin aldatzea erabakiz gero, bigarren bozketa agintealdiak hiru ala lau urtekoa izan behar duen erabakitzeko izan da. Lau urteko iraupenaren alde bozkatu dute hamahiru euskaltzainek eta bostek hiru urtekoaren alde.

Hirugarren bozketa agintealdia luzatzeari mugarik jarri behar zaion ala ez erabakitzeko izan da. Bi proposamen ziren: mugarik ez ezartzea bata, eta gehienez ere hamabi urte jarraian izatea. Bozkatu da eta hona emaitza: mugarik ez ezartzearen alde, bederati, eta hamabi urteko muga ezartzearen alde, sei.

Beraz, honela gelditu da artikulua hori:

“28. art. Zuzendaritzako karguak lau urtetarako izanen dira. Izendatuak berriro hautatuak izan daitezke.”

Bestalde, euskaltzainei *Barne-erregelen* testu berritua banatu zaie. Dena dela, onartutako *Arautegiaren* aldaketa hauen arabera zenbait artikuluko egokitu beharrean daudela adierazi du idazkariak.

Eskuartekoak

Etxarri Aranatzen ekainean egingo diren ekitaldien berri jasotzen duen egitaraua aurkeztu zaie euskaltzainei. Orobat, Valentzian sinatu berri den “Declaració de València sobre els drets de les llengües catalana, basca i gallega” delakoaren testua.

Batzarra arratsaldeko seietan eman da amaitutzat.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *